

Prentsa oharra

Nota de prensa



Udalak 210.264 euro eman ditu ez-ohiko gizarte laguntzetan osasun alarma dela eta

Orain arte laguntzak jasotzen ez zituzten 323 familia unitatek jaso ahal izan dituzte prestazio horiek martxoan eta apirilean

Donostiako Udalak, Gizarte Ekintza Sailaren bidez, ez-ohiko 210.264 euro inbertitu ditu Lan Partekatua Planaren Plana sustatzeko (LPPL) eta Gizarte Larrialdietarako Plana sustatzeko (GLL) laguntzetan. Laguntza horiek 323 familia-unitatera iritsi dira martxoan eta apirilean.

Osasun-alarmaren egoera dela eta, familien premiazko gastuei aurre egiteko, GLLen bidez ordaindu beharreko zenbateko zehatz bat proposatu da, ohiz kanpo eta bizirik irauteko premia duten kasuetan. Orain arte laguntzak jasotzen ez zituzten 323 familia horientzako laguntzak izan dira.

LPPLek 45.741 euroko inbertsioa izan dute, beste laguntzarik jaso ezin duten familiei eta/edo pertsoneri lehen mailako ondasunak eskuratzen laguntzeko. GLLetan, gizarte-bazterketako egoerak saihesteko beharrezkoak diren gastu berezi, arrunt edo apartekoei aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten pertsonentzako laguntza ekonomikoak, bestalde, 164.522 euro izan dira.

Laguntza hauek jaso dituzten 323 familietatik 62k LPPL bakarrik jaso dute eta 261ek GLL edo biak kobratu dituzte. Gainera, laguntza hauek emateko, eta Eusko Jaurlaritzaren jarraibideari jarraituz, laguntzak eskuratzeko prozedura erraztu eta malgutu da, egoera berrira egokitzuz.

Eskaeren igoera

Premiazko eta elikadurarako laguntza horiez gain, Udalak kudeatzen jarraitzen du aparteko izaerarik ez duten GLLak eta LPPLak.

Horrela, gizarte-larrialdietarako laguntzen kasuan, iaz, 2019ko apirilera arte, Udalak 580.975 euro ordaindu zituen, 1.706.117 euroko gastua konprometitu zuen eta urte amaieran 2.442.088 euroko gastua egin zuen.

2020an, egun berean, 870.939 euro ordaindu dira eta apirilean 2.178.345 euroko gastua egiteko konpromisoa hartu da.

LPPLen kasuan, 2019ko apirilera arte 136.254,78 euroko laguntzak ordaindu ziren, eta 2020an, egun berean, 218.510,13 euroko laguntzak ordaindu dira.

Gizarte Ekintzako zinegotzi Aitziber San Romanek balioa eman nahi izan dio saileko gizarte-eta administrazio-langileek egin duten eta egiten ari diren lanari, *“une oro egokituz eta ahalegin handia eginez hala eskatu duten familia guztiei laguntzeko, aurrez aurre lan ez egiteak ekartzen dituen zailtasunekin, eta are gehiago kolektibo ahulenei dagokionez”*.

Donostia, 2020ko maiatzaren 7a